



**Mondragon
Unibertsitatea**

Enpresagintza
Fakultatea
Facultad de
Empresariales

DESGAITASUNAK ETA HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEENTZAKO ARRETARI BURUZKO GIDA

**Enpresagintza Fakultatea / Facultad de Empresariales
Mondragon Unibertsitatea**

2019ko urtarrila

AURKIBIDEA

I-	SARRERA	1
II-	EGOKITZAPENAK UNIBERTSITATEAN: HURBILKETA KONTZEPTUALA.....	2
III-	DESGAITASUNAK EDO IKASTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN IKASLEEN HEZKUNTZA BEHARRAK UNIBERTSITATEAN.....	3
IV-	EGOKITZAPEN ARRUNTAK HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEENTZAT.....	5
V-	DESGAITASUN ETA PREMIA ESPEZIFIKOEN TIPOLOGIA	6
	a. Desgaitasun fisikoa	
	b. Ikusteko desgaitasuna	
	c. Entzuteko desgaitasuna	
	d. Gor-itsutasuna	
	e. Asperger sindromea	
	f. Desgaitasun psikikoa	
	g. Zailtasun espezifikoak irakurtzen edota idazten ikasteko (dislexia eta disgrafia)	
	h. Arreta defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua (TDAH)	
VI-	ENPRESAGINTZA FAKULTATEAK ERANTZUNDAKO HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK- ANEE/HPBA programa (Hezkuntza premia bereziei arreta).....	11
	a. Desgaitasun fisikoa	
	b. Ikusteko eta entzuteko desgaitasun partziala	
	c. Zailtasun espezifikoak irakurtzen edota idazten ikasteko (dislexia eta disgrafia)	
	d. Arreta defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua (TDAH)	
VII-	I. ERANSKINA- Ikasleak, Hezkuntza Premia Berezien Arreta programan sartzeko prozedura.....	16



**Mondragon
Unibertsitatea**

Enpresagintza
Fakultatea
Facultad de
Empresariales

I. Sarrera

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak hausnarketa bat egin du gero eta ugariagoak diren desgaitasun eta premia bereziak dituzten ikasleen gainean. Honen trataerarako protokolo zehatzik ez dagoenez, eta laguntzarik handiena eskaintzeko asmoz, orain arte garatutako ekintzak zentzu komunean eta ikasle bakoitzarekin izandako komunikazioan oinarritu dira.

Hala ere, gehienbat bigarren hezkuntzatik datozen behar bereziak dituzten ikasle hauen egoera ikusita, Enpresagintza Fakultateak, hainbat ekintza zehaztea eta sistemizatzea erabaki du, batetik, ikasle hauei arreta eta laguntza hobea emateko eta bestetik, Fakultateko pertsona talde ezberdinen eginkizunak errazteko: IIP, ZAP eta titulazioen koordinazioak.

Horretarako, erabilitako marko legala izan da, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen aldeko nazioarteko konbentzioaren onarpena Espainian (2006ko abendua) eta erreferente bezala, honako hau hartu da, Egokitzapen Gida Unibertsitatean (2016ko abendua), CRUEko Egokitzapen Unibertsitate Taldeko Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko Zerbitzu Sarrerak argitaratuta.

Beraz, desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen berdintasun eskubideak bermatzeko asmoz, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak, bere ahalbide eta baliabideen neurrian, desgaitasunak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako arretari buruzko gida hau argitaratu du.



**Mondragon
Unibertsitatea**

Enpresagintza
Fakultatea
Facultad de
Empresariales

II. Egokitzapenak unibertsitatean: hurbilketa kontzeptuala

Unibertsitateko hezkuntza programaren egokitzapena, desgaitasuna edota hezkuntza premiak dituzten ikasleen hezkuntza beharrei erantzuteko egiten da. Egokitzapenen bidez, ikasle hauei, beharrezkoak diren baliabide espazialak, pertsonalak, materialak edo komunikatiboak eskaini nahi zaizkie unibertsitateko kurrikulumaren sarbiderako. Honetaz gain, egokitzapen hauen barruan sartzen dira ere, hezkuntza programaren oinarrikoak edo preskriptiboak ez diren elementuen egokitzapena; hau da, denborak, metodologia edo ebaluazio tipologia, besteak beste.

Dena dela, honek ez du esan nahi ikasle hauei gutxiago eskatuko zaienik edo ikasleen ikasketak balio gutxiago izango dutenik. Plantatutako egokitzapenek, beti errespetatuko dute ekintza ezberdinen moldaketa (ebaluazioa, ariketa, talde lanak, kanpo lana...), ikasleak, ikasgai bakoitzean aurretik ezarritako kompetentziak lortu ahal izateko.

Unibertsitate esparruan, unibertsitateko irakasleek egin beharreko egokitzapenek, erraztu egiten dute desgaitasuna duten ikasleen eskubidea, euren unibertsitate ikasketak garatzeko, aukera berdintasunean. Hau ezarrita dago, 2007ko apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoan. Lege honek, ordezkatu egiten du, Unibertsitateko 2001eko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa. (2007/04/13ko BOE, 89 zk.), bere hogeitalaugarren xedapen gehigarrian, desgaitasuna duten pertsonen barneratzea unibertsitatean gaia jasotzen zuena.

“1. Unibertsitateek bermatu egingo dute, unibertsitate komunitate barruan, desgaitasuna duten ikasle eta gainontzeko kideen aukera berdintasuna. Honen arabera, debekatuta egongo dira diskriminazio era guztiak, neurri positiboan alde. Azken hauen ezarpenekin, ezgaitasuna duten pertsonen partaidetza osoa eta efektiboa lortu nahi da unibertsitate esparruan...”

... 3. Unibertsitateek, ekintzak sustatuko dituzte, unibertsitate komunitate barruan dauden kideen behar bereziei edo partikularrei erantzuteko. Horretako, bideak, laguntzak eta errekursoak jarriko dira, aukera berdintasuna erreala eta efektiboa bermatzeko: hau da, gainontzeko unibertsitateko komunitatearen kideen aukera berdinak izateko...”

Egokitzapenak, ikasleek dituzten Hezkuntza Beharren arabera ezarriko dira. Pertsona bakoitzak, premia espezifikoa izaten ditu eta aldatu egin daitezke ikaslearen ezaugarri pertsonalaren arabera, garatzen ari den titulazioaren eta bere egungo egoeraren arabera, besteak beste. Ikaslearen eta honen zirkunstantzien aurreko ebaluazioak, ahalbidetuko du, egokitzapen eta baliabide egokiaren ezarpena. Hauek beti adieraziko dira termino positibotan, ikaslearen gaitasunak eta kualitateak azpimarratuz. Dokumentu honetan agertutako gomendio orokorrak, gida bezala hartuko dira eta horregatik moldatu egingo dira, ikasle bakoitzaren zirkunstantzia pertsonalera eta bere osasun egoerara. Lehendabizi, Hezkuntza Premia bereziak dituzten ikasle guztiei zuzendutakoak azalduko dira, eta ondoren, pertsonak dituen ezgaitasunaren edo ikasteko zailtasunaren arabera egokitzapen espezifikoa agertuko dira.



**Mondragon
Unibertsitatea**

Enpresagintza
Fakultatea
Facultad de
Empresariales

III. Unibertsitatean ezgaitasuna edo ikasteko zailtasuna duten ikasleen hezkuntza beharrak

Gomendioak, hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleen arretarako.

Ezgaitasun edo ikasketa zailtasun mota bakoitzerako egon behar diren egokitzapenekin hasi aurretik, beharrezkoa da, hezkuntza premiak dituzten ikasle guztientzako aplikazio orokorreko neurriak zehaztea. Hauek, banan banan aplikatuko dira, errepikakorrek ez izateko. Orokorrean, irakaskuntza jasotzen duten ikasle guztientzako arau baliagarriak dira.

1. Ezin da identifikatu gelan, hezkuntza premiak dituen ikaslea, bere baimenik gabe. Beraz, bere baimena behar da honen ikaskideei informatzeko. Erabat debekatuta dago honen datuak beste pertsona batzuei ematea edo komunikatzea, Izaera Pertsonaleko Datuen Babespen 15/1999 Lege Organikoak jasotzen duenaren arabera.
2. Ikasturtearen hasieran, irakasgaiaren programazioa, tutoretzaren ordutegia, lanak entregatzeko epeak, azterketa datak eta edozein informazio garrantzitsua emango da.
3. Tutoretzak, prestakuntza prozesuan laguntzeko eta unibertsitatean integratzeko hezkuntza estrategiak bezala erabiliko dira. Tutoretzen bidez, irakasleak irakasgaiaren zailtasunak identifikatzea, kontzeptuak argitzea eta edukiak zabaltzea lortuko du eta ikusitako zailtasunaren arabera programaren aldaketa metodologikoak sustatuko ditu.
4. Ikasturtearen hasieran, komenigarria da ikaslea eta irakaslea harremanetan jartzea ikasketaren zailtasun espezifikoak ikusteko eta metodologia egokia martxan jartzeko.
5. Informazio eta komunikazio teknologia berriak erabiliko dira (korreo elektronikoa, kanpus birtuala, foruak eta abar...), zalantzak argitzeko, informazioa trukatzeko edo materiarekin erlazionatutako beste gai batzuei buruz hitz egiteko.
6. Irakasleak ezagutu beharko ditu Unibertsitateak dituen zerbitzuak eta baliabideak, hezkuntza beharrak dituzten ikasleentzako, eta beraz, honi buruz informatuko zaio.

7. Kanpoko praktika akademikoei dagokienez, honako hau egin beharko da:

- a) Unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak erregulatzen dituen 592/2014 Errege Dekretatuaren 10.4 artikuluan ezarritako bideak jarraituko dira.

“Unibertsitateek, desgaitasuna daukaten ikasleen tutoreei, bere funtzioa era egokian betetzeko beharrezkoa den informazio eta prestakuntza emango diete.”

- b) Ikaslea, bere beharretara hobeto egokitzen den entitatean sartuko da.
- c) Unibertsitatean emandako giza baliabideen eta baliabide teknikoaren erabilera ahalbidetuko da.
- d) Lehentasuna izango dute praktika zentroak aukeratzeko, bakarrik euren premiei erantzuteko aukera gutxi daudenean.
- e) Praktiken ordutegia, ikaslearen hezkuntza beharren arabera izango da. Honek esan nahi du, ikasleak egunean lan ordu gutxiago egin dezakeela edo atsedean egun bat izan dezakeela eta praktikak egiteko aldia luzatu daitekeela.
- f) Komunikazio egokia ezarriko da, honako hauen artean koordinazioa egoteko, Praktika zentroen tutore profesionalak, unibertsitate zentroaren tutore akademikoak eta desgaitasuna duen ikaslearen hezkuntza praktikokoan inbolukratuta dauden beste zerbitzu batzuk.



**Mondragon
Unibertsitatea**

Enpresagintza
Fakultatea
Facultad de
Empresariales

IV. Egokitzapen arruntak hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzat

- Erraztu ikaslearen kokapena gelan. Hau eskuragarria izan beharko da eta altzari egokiak eduki beharko ditu, ahal den neurrian, ikaslea autonomoa izan dadin.
- Erraztu gelako baliabide teknikoen erabilera (portatilak, komunikatzaileak, grabagailu digitala, FM-ko irratia, eta abar...). Ikasleak laguntza tresnaren bat erabiliko balu bere zereginak garatzeko, eta batez ere azterketetarako, komenigarria izango litzateke, irakasleek hauek ondo ezagutzea, hezkuntza kalitatearen hobekuntza lortu ahal izateko. Irakasleak jakin behar du ere, erabilitako laguntza produktuak biltegitratze memoria duen edo ez.
- Grabagailua, ikasleak edo irakasleak erabil dezake, baina ikasleak ez badu nahi berak egindako komentarioren bat grabatuta egotea, grabagailua eten daiteke.
- Denbora gehiago eman, ariketak, zereginak eta praktikak egiteko, eta hauek entregatzeko formatu ezberdinetan, ikasle bakoitzaren premien arabera.
- Areagotu azterketa egiteko denbora, Fakultateko dagokion zerbitzuak adierazitako portzentajearen. Honetarako, kontuan hartuko da ikasle bakoitzaren ezgaitasuna edo beharra.
- Proba atzeratzeko aukera, modu egokian justifikatuta egoten bada ezgaitasun egoeratik eta irakasleari aurretik jakinarazten bazaio. Beharrezkoa izango da unibertsitate bakoitzeko erakunde eskudunaren onarpena (Departamentua edo Zuzendaritza/ Zentroko Dekanatua).
- Sustatu ikasleen kolaborazioa, euren apunteak uzteko. Kolaborazio hau, tutoreek edo Koordinazioko Titulazioak bultzatzen dira.

V. Desgaitasun eta premia espezifikoaren tipologia

✓ Desgaitasun fisikoa

Mugimendu desgaitasuna da, mugimenduak egiteko zailtasuna edo inkapazitatea, hainbat alterazio izateagatik, nondik datorren kontuan hartu gabe. Kolektibo honen barruan, ezer mugitu ez dezaketen pertsonak edo zerbait mugitu dezaketenak daude. Goiko gorputz adarrak edota behekoak egon daitezke afektatuta. Zerbait manipulatzeko, mugitzeko edo hitz egiteko zailtasunak ere ohikoak dira.

Desgaitasun organikoan, barne organikoak daude afektatuta. Desgaitasun hau lotuta dago, erraz detektagarriak ez diren gaixotasunekin: minbizia, gaixotasun digestiboak (Crohn, kolitis ultzeradunak), fibrosi kistikoa, kardiopatiak, eta abar.

Ezaugarri orokorrak bezala, gaixotasun hauetan krisiak egoten dira noizean behin eta gehienetan honek ekartzen du, medikazioa hartu beharra, jarraipen medikoak egitea eta etxeko atsedena. Beraz, honen ondorioz, ikaslea batzuetan ezin izango da klasera joan.

✓ Ikusteko desgaitasuna

Orokorrean, itsutasunari edo ikusteko zailtasunari buruz ari garenean, esan nahi duguna da, ikusteko gaitasuna erabatekoa edo oso serioa dela. Zentzu honetan, bereiztu behar dugu itsutasuna duten pertsonak eta ikusteko zailtasunak dituztenak.

Itsutasuna duten pertsonak ezin dute ezer ikusi edo argia nolabait pertzibitu dezakete (bereiztu dezakete argia eta iluntasuna, baina ez objektuen forma).

Ikusteko urritasuna duten pertsonak, zuzenketa hoberenarekin, zailtasun asko izan arren, ikusi ahal izango dituzte hainbat objektu, oso distantzia motz batean. Pertsona hauetako batzuek, tamaina handiko letra inprimatu argia irakurri ahal izango dute, baina orokorrean polikiago, esfortzu handiz eta laguntza bereziekin.

Zerbait pertsonak afektatuta daukate bere aurrean dauden objektuak identifikatzeko gaitasuna, (ikusmen zentralaren galera), edo detektatzeko begien aldamenen, goian edo behean dauden objektuak (ikusmen periferikoaren galera).



✓ Entzuteko ezgaitasuna

Entzumen defizientziak, ongi entzuteko alterazio kuantitatiboak dira. Bi oinarrizko kategoria bereiz daitezke:

Hipoacusia: Entzumena eskasa da, baina funtzionala da eguneroko bizitzarako.

Daukaten entzuteko hondarrekin eta beharrezko laguntza produktuekin (audiofonoak, maiztasun modulatuak emisorak..), zein berme pedagogiko eta logopediko egokiekin, ahozko hizkuntza ikas dezakete entzumenaren bidez (gortasun arina, ertaina eta gortasun zorrotzeko zati bat). Ohikoa da, artikulazio, hiztegi eta irakurtzeko ulermen arazoak izatea.

Gortasun zorrotza edo kofosis: Entzumena guztiz galdua dago edo entzuteko gaitasuna oso eskasa da. Hau dela eta, desgaitasun hau daukaten pertsonak zailtasun handiak izango dituzte ahozko hizkuntza entzumenaren bidez ikasteko.

Bestalde, ez da berdina izango gortasuna edukitzea ahozko hizkuntza garatu aurretik (lokuzio aurrekoa) edo ondoren (lokuzio ondokoa), ezaugarri honek, eragin handia duelako hizkuntza trebetasunen garapenean.

✓ Gor-itsutasuna

Urriaren 23ko 27/2007 legean, Espainiako zeinu hizkuntza errekonozitzen da, eta pertsona gortuen, entzuteko ezgaitasuna edo gor-itsutasun desgaitasuna duten pertsonen laguntza baliabideak arautzen dira. Lege honen 4. Artikuluak pertsona gor-itsuak horrela definitzen ditu:

“...Ikusmenean eta entzumenean baterako ezgaitasunak dituzten pertsonak, informatuta egoteko, komunikatzeko eta mugitzeko gaitasunak murriztuz. Ezgaitasun honek, oztopatu egiten ditu era larrian, bizitza autonomoa egiteko eguneroko trebetasun minimoak, beraz, beharrezkoak izango dira zerbitzu espezializatuak, pertsona hauek atenditzeko prestakuntza espezifikoa jaso duen pertsonala eta komuniatzeko metodo bereziak.” (Art. 4).

Pertsona gor-itsu batzuk guztiz gorrak etaitsuak dira eta beste batzuek entzuteko edota ikusteko hondarrak dituzte. Ikusteko edo entzuteko gabezia graduak, informatuta egoteko eta honetarako beharrezkoak diren baliabideak zehaztuko ditu.

✓ **Asperger sindromea**

Asperger sindromea, autista espektroaren barruan dagoen nahasmendua da. Honen ezaugarriak, harreman sozialetarako gehiegizko mugaketak, komunikazio eta hizkuntza arazoak dira. Honetaz gain, desgaitasun hau daukaten pertsonak, gabeziak dituzte buruko malgutasuna, enpatia, eta aurreikuspena edukitzeko. Orokorrean, zailtasunak dituzte ironiak ete egindako esaldiak ulertzeko. Hau dela eta, kontuan hartu behar da pertsona hauekin komunikatzeko era, mezua esplizituagoa eginez. Bere ahotsa tonua altuegia izan daiteke daukaten antsietate maila altuagatik. Antsietatea, ikusten da ere, bere gorputzaren adierazpen zurrunean eta mugimendu zakarretan. Zailtasunak izan ditzakete egoera sozialak eta idatzita ez dauden arauak ulertzeko eta gatazkak konpontzeko. Orokorrean, bere interakzioak mugatuak dira eta seguraski, ez dute hasiko inolako giza harremanik euren kabuz; gainera, gorputzaren adierazpen urruna eta lotsatia izango dute.

Hizkuntzaren erabilera berezia da, eta batzuetan, alperrak, despistatuak, berekoiak eta erronkariak direla pentsa daiteke, baina errealitatea beste bat da, adierazpen horiek gure elkartrukeak dituzten klabe sozialak ulertzeko eta integratzeko zailtasunengatik sortzen dira. Denbora kudeatzea kostatzen zaie, eta honek eragina izango du zereginen garapenean. Honetaz gain, sarritan, arreta-kontzentrazio arazoak izaten dituzte. Irakasleekin harreman ona mantentzen dute, baina modu literalean erantzuten dute galdetutakoari.

✓ **Desgaitasun psikikoa**

Desgaitasun psikikoa edo buru nahasmendua daukaten pertsonak, garapenaren prozesu kognitiboan eta afektiboan alterazioak edukitzen dituzte. Hauek ez dira ohikoak izaten indibiduoaren erreferentziako talde sozialean. Alterazioak, arrazoinamenduan, portaeran, errealitatea errekonozitzeko gaitasunean edo bizi baldintzetan moldatzeko ahalmenean nabari daitezke. Pertsona hauek, desgaitasun eta disfuntzio sozial gradu aldagarriak dituzte, hainbat gizarte eta osasun baliabideekin atenditu behar direnak.

Osasun esparruan, funtsezkoa da koordinazioa edukitzea, ezgaitasuna duen ikasleari laguntzen dioten erakunde sozialekin zein profesionalen eta familiarekin. Inguruko berme sareek, portaera, itxura eta jokaera aldaketak nabari ditzakete ikaslearekin daukaten ohiko harremanetan. Batzuetan, hauek, arazo larriak egon daitezkeen seinaleak izan daitezke.



Larrialdi egoeran, Protokoloa aktibatzea behar izanez gero, 112 ra deitu behar da. Gaixotasun edo nahasmendu bakoitzak, ezaugarri partikularrak eta indibidualizatuak izan arren, pertsona bakoitzak sintoma ezberdinak jasaten dituelako, ezaugarri ohikoenak eta nabarienak hauek dira:

- Beste edozein ikaslek izan dezakeen ahalmen berdina daukate. Jasotzen duten trataera farmakologikoak eragina izan dezake bere errendimendu akademikoan, bere arretan, kontzentrazioan, memorian eta informazioaren erabileran eta baita bere ahoko eta idatzizko ulermenean ere.
 - Agian laguntza beharko dute eguneroko bizitzaren eskaerei aurre egiteko, bai maila sozialean, zein zeregin akademikoak burutzerakoan.
 - Bere ahalmena inguruko informazioa prozesatzeko eta elaboratzeko eta bere honekiko egokitzapena afektatuak egon daitezke.
- ✓ **Zailtasun espezifikoak irakurtzen edota idazten ikasteko (dislexia eta disgrafia)**

Dixlesia eta disgrafia irakurtzen edo idazten ikasteko dauden zailtasun espezifikoak dira (IIIZE), eta horrela definitzen dira:

...Irakurtzeko eta idazteko zailtasunak bezala azaltzen den nahasmendu taldea, (hemen sartzen dira ere, afektatutako funtzio psikologikoak eragindako beste hainbat zeregin)... Nahasmendu hauek, ikaslearen berezkoak dira. Nahasmendu hau daukan ikasleak, ez dauka koefiziente intelektualaren defizitarik. Pertsona hauek eduki dezaketen disfuntzio neurologikoak, atzerapenak probokatzen ditu funtzio psikologikoen garapenean (pertzepzio prozesuak eta psikolinguistikoak, lanaren memoria, ikasteko estrategiak eta metakognizioa) (Romero J.F. eta Lavigne R. 2005.40 or.).

Irakurketa eta idazketa batera ikasten dira. Irakurketak eta idazketak, prozesuak partekatzen dituztenez, batean dauden zailtasunek eragina izan dezakete bestean. Bakarrik irakurtzeko zailtasunak dauzkaten ikasleak aurki dezakegu edo baita bakarrik idazteko zailtasunak dituzten ikasleak ere, baina ohikoena da, dislexia daukan pertsonak, idazteko zailtasunak ere izatea (disgrafia).

Nahasmendu honek ez dauka larritasun berdina kasu guztietan eta bere pronostikoa aldatu egin daiteke ikasle batzuetatik beste batzuetara. Ikasle bat adin heldura heltzen denean eta batez ere, goi mailako ikasketak egiten dituenean, oso posible da aurreko etapetan agertzen ziren zailtasun horiek orain nahiko konpentsatuta egotea.

✓ **Arreta defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua (TDAH)**

Gehien nabaritzen denaren arabera, arretaren defizita, hiperaktibitatea edo oldarkortasuna edo denak, TDAH azpi mota ezberdinak bereiztuko dira: TDHA denbora luzean, haurtzaroaren eta nerabezaroaren nahasmendu propioa kontsideratu da. Baina TDHAREN sintomak eta inpaktu funtzionala ez dira beti desagertzen adin heldura ailegatzekoan eta nahasmenduak jarrai dezake kasuen %50 eko baino gehiagotan.

TDAHren sintomak, arretarik eza, hiperaktibitatea eta oldarkortasuna dira. Adin helduan, hiperaktibitateen sintomak gutxitu egiten dira eta daudenean egonezinenarekin lotutakoak izaten dira, baina jarraitu egiten dute presente egoten, oldarkortasunak eta arretaren defizitak eta hauek eragina izan dezakete zeregin akademikoak egiterakoan eta eguneroko bizitzan. TDAH daukan unibertsitateko ikasle batek erakutsi ditzakeen ezaugarri posibleak hauek dira:

- Oldarkortasun sintoma nagusitzen denean, ikasleak, zereginak nahiko azkar egin dezakeela ikusi ahal da. Ikasle hauek, planteatutako eskakizunei berehala erantzuten saiatzen dira, bai klasean, zein ebaluazio probetan, eta ondorioz, erantzuna okerrak emateko aukera gehiago daukate. Agian bere grafia ulergaitza, antolaturik gabeko ideiekin eta zirriborroz jositakoa izan daiteke. Gelan izan beharreko portaeran, itxoiteko eta isilik egoteko zailtasunak dituzte.
- Arretaren defizita nagusitzen den kasuetan, TDHA daukaten ikasleek kontzentratzeko, zereginak antolatzeko eta hasitako proiektuak amaitzeko zailtasunak dituzte. Laguntza behar dute bere denbora era egokian kudeatzeko eta gauzak ahaztea ohikoa izan daiteke, adibidez, lanen entregean datetan.



**Mondragon
Unibertsitatea**

Enpresagintza
Fakultatea
Facultad de
Empresariales

VI. Enpresagintza Fakultateak erantzundako hezkuntza premia bereziak-ANEE/HPBA programa (Hezkuntza premia bereziei arreta)

✓ **Desgaitasun fisikoa**

• **Irakaskuntzan eta klaseko asistentzian**

- Ikasleari autonomia izaten laguntzen dion altzari egokiak eskaini eta berau, atetik gertu jarri honen sarrerak eta irteerak errazteko.
- Ikasleak, nolabaiteko komunikazio handigarriko sistemaren bat edo sistema alternatiboren bat erabiliko balu, irakasleak, komunikazio era hau ezagutzea komenigarria izango litzateke, kalitateko komunikazio bat lortu ahal izateko.
- Desgaitasunak, goiko gorputz adarrei eragiten dien kasuetan edo nekeak, dedikazio denboran, eragin negatiboa duen kasuetan, lanak entregatzeko epea luzatu egingo da.
- Beharrezkoa izango balitz, klasetik irtetea utzi (komunera joateko beharra, medikazio bat hartzeko, eta abar.), irakasleen alde aurretiko ezagutzarekin eta ikasturtearen hasieran posibilitate hau egin litekeela ohartaraziz.
- Ikasleari hitz egitea kostatzen zaionean, ahozko adierazpenerako denbora luzatu. Irakaslea, ikaslea ez moztzen saiatuko da, eta ez ditu esaldiak amaituko bere orde. Hitzegiteko arazoak larriak badira, lana bakarrik irakaslearen aurrean azaltzea eska daiteke.

• **Ebaluazio probetan**

- Proba egingo den eraikinak zein gelak ez daukatela oztoporik eta altzari eta material egokiak dituztela aurreikusi.
- Gelan espazio egoki bat jarri, egokitzen neurriek, gainontzeko ikasleen azterketa dinamika distortsionatu dezaketenean. Hau ezinezkoa izango balitz, beste gela bat jarriko zaio behar bereziak dituen ikasleari azterketa egiteko, edo ikasgelaren desberdina den lekuan burutuko da (ospitalea, etxea). Honetarako, aurretik beti egon behar da justifikazio medikorik.
- Proba atzeratzeko aukera, erakunde ofizial baten txosten mediko batekin era egokian justifikatzen denean, edo etxean egin beharreko atsedeenagatik, ebakuntza kirurgikoengatik, eta abar.



- Kasu bakoitzean beharrezkoa den azterketaren egokitzapena egin:
 - a) **Formatu digitala:** Ikasleak, burutuko du azterketa ordenagailuan, idatzizko proba bat garatzeko normalean erabiltzen dituen laguntza produktuekin eta denbora gehiago erabiliz. Aurretik, ekipoak eza daukala inolako edukirik konprobatu behar da.
 - b) **Ahozko modalitatea:** Ikasleak ahoz egingo du azterketa dagokion irakaslearen aurrean. Probaren grabazioa egitea gomendatzen da, hau jasota gera dadin. Honek etorkizuneko berrikuspenak ahalbideratuko ditu.
 - c) **Transkriptorea erabiliz:** Ikasleak diktatzen diona ordenagailuan idazten duen pertsona. Kasu honetan, ikasleak laguntza hau titulazioko Koordinatzaileari eskatu behar dio. Ikasleak, galdera edo ariketa kopurua murriztea ere planteatu dezake, honek ez badu ekartzen helburuen murrizketarik edo konpetentziak ebaluatzeko oztoporik.

✓ **Ikusteko eta entzuteko desgaitasun partziala**

• **Irakaskuntzan eta klaseko asistentzian**

– **Bisuala**

- Lehenengo ilaretan edo ikaslearentzat egokienak diren lekuetan (argiztapen hobea) jar daitezten utzi, klaseko azalpenak jarraitu ahal dezaten (portatilak erabiltzen badituzte, entxufetatik gertu kolokatzeko dira hauek portatilak konektatzeko).
- Klasean dokumenturen bat irakurriko balu, poliki eta argitasunez irakurri beharko luke, irakurtzen duen bitartean laburpenak edo komentarioak egitea saihestuz.
- Izaera indibidualeko lanen kasuetan, ikusteko desgaitasuna duten ikasleek, unibertsitatean eskuragarri dauden iturriak, irakurtzeko testuak, multimedia tresnak ezagutzen dituztela ziurtatzea komeni da, eta egokitutako postuak egongo balira ere bai.
- Ikasle hauek normalean erabiltzen duten laguntza produktuen erabilera baimendu (portatilak, braille-speak, eta abar.).
- Ikaslearen zirkunstantzia zehatzen arabera, bere ohiko bizilekutik mugitu behar bada kanpo lanengatik, emaitzak aurkezteko epe luzeagoa ematea komenigarria izango litzateke.
- Materialak eskuragarriak izan daitezten saiatu. Fotokopiatuta baldin badaude, inpresio kalitate onekoak izan beharko dira; hau garrantzitsua da ikusmen urria duten ikasleen kasuan.

– **Entzumenezkoa**

- Lehenengo ilaretan edo irakaslearen azalpenak jarraitzeko ikaslearentzat egokienak diren lekuetan jartzen utzi.
- Posible denean, saiatu espazioa “U” forman egotea edo zirkuluan, ikasle guztiek euren ikaskideen parte hartzeak ikusi ahal izateko.
- Errespetatu beti ikaslearen hitz egiteko erritmoa, eta saiatu bere esaldiak ez amaitzen, berak ez badu eskatzen.
- Pelikulak edo bideoak proiektatzen direnean, saiatu hauek azpitoluekin jartzen. Eman ikasleari gai garrantzitsuenak dituen gidoi bat. Gogoratu gainera, argia itzali edo jaitsi egiten bada, ikasleek ezin dutela parte hartzaileen eta proiektzioen inguruko ezpain irakurketarik egin.
- Era berean, ikasle hauek normalean erabiltzen dituzten beste laguntza produktuen erabilpena baimendu (portatilak, komunikatzaileak eta abar). Ikasleak, frekuentzia modulatuaren ekipo bat izango balu, utzi egon behar zaio honen erabilera gelan. (Ekipo hau erabiltzeko beharrezkoa da, irakasleak, ikaslearen audiofonoarekin edo bere inplante koklearrarekin konektatuta dagoen eta bere ahotsa transmitituko duen mikrofono emisore bat edukitzea. Klasean ikaskideen partaidetzak egonez gero, irakasleak mikrofonoa pasatuko die hauei.
- Dokumentu bisualak erabili ahozko azalpenetan: laminak, grafikoak, transparentziak eta abar.
- Klasean azalduko diren edukiak ulertzen eta eskuratzen laguntzeko, irakasleak aldeztu aurretik eman beharko luke, bibliografia, irakurketak, laburpenak, aurkezpenak edo gelan formatu testuan erabili behar den edozein materiala.
- Agian denbora gehiago eman behar zaio entzuteko desgaitasuna duen ikasleari bere ahozko azalpenerako.

• **Ebaluazio probetan**

– **Bisuala**

- Azterketak iturri motan eta letra tamainan. Testuetan Arial, Verdana, eta pixka bat gutxiago Times New Roman erabiltzea gomendatzen da eta tamainari dagokionez, 14, 16, eta 18 erabiliko dira, ikasleari egindako ebaluaketaren erabilera.
- Ahozko proba eginez gero, bere grabazioa gomendatzen da ondorengo berrikuspenera egin ahal izateko.
- Irudi, grafiko, taulekin egindako azterketetan...., irudikapenen egokitzapena egin behar da, hauek hedatuz edo eliminatuz, baina bere edukia testu bezala adierazi beharko da.



- Bide teknikoek, gainontzeko ikasleen azterketaren dinamika distortsionatu dezaketenean, espazio egoki bat jarriko zaio gela barruan. Beste erremediorik ez balego, azterketa beste gela batean egingo litzateke.

- **Entzumenezkoa**
 - Gainontzeko ikasleei ahoz ematen zaien informazio osoa, ikasle hauei idatziz emango zaie.
 - Proban zehar egiten den edozein komentario, ikasle hauei komunikatu behar zaie esplizitoki. Azterketan zehar izandako zalantzak argitzeko, edukia beste hitz batzuekin azaldu daiteke, argi bokalizatuz eta ulertu egin dela ziurtatuz. Hizkuntza egitura errazagoa ere erabili daiteke.
 - Ahozko azterketetan zein idatzizkoetan, utzi egin behar zaie laguntza produktuak erabiltzea, adibidez, soinu amplifikatzaileak edo FM-ko ekipoak.
 - Ahozko azterketen kasuan, beharrezkoa ikusten bada, honen grabaketa aurreikusi bere ondorengo berrikuspenera egin ahal izateko. Egokitzapen hauek, GALaren edo MALaren ahozko azalpenenean ere egongo dira.

- ✓ **Zailtasun espezifikoak irakurtzen edota idazten ikasteko (dislexia eta disgrafia)**
 - **Irakaskuntzan eta klaseko asistentzian**
 - Ikasleak normalean erabiltzen duen laguntza materialaren erabilpena baimendu, adibidez, dislexiarako ordenagailu espezifiko bat, grabatzailea...
 - Presentzialak ez diren ebaluazio lanak burutzeko eta entregatzeko denbora gehiago eskaini.
 - Gelan modu indibidualean egiten diren irakurketarako edota lan idatzietarako denbora gehiago eman.
 - Erakusten dena edo arbelean idazten dena, ozenki esan, PowerPoint, eta abar.

- **Ebaluazio probetan**

- Ikasleak eskatzen badu, galderak irakurri testu konplexuen ulermena erraztu ahal izateko.
- Posible da idazketan izandako zailtasunagatik, akatsak izatea bere adierazpen idatzian. Honegatik, irakasleak nagusiki edukia baloratu beharko du.
- Irakasleak utzi egingo dio ikasleari azterketa ordenagailuan egiten, ebaluatu beharreko irakasgaiarekin erlazionatutako edukirik, zuzentzaile ortografikorik zein Interneteko konexiorik ez dagoela konprobatuz.
- Ebaluazio probak egiteko denbora %25 batean gehitu, idazketa eta berrikuspen ortografikoa errazteko.

- ✓ **Arreta defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua (TDAH)**

- **Irakaskuntzan eta klaseko asistentzian**

- Arreta lortzeko estrategia metodologikoak bilatu, zereginak zatikatuz, bere klaseko partaidetza sustatuz, gelan egin duen lanaren inguruko interesa erakutsiz.
- Lagundu ikasketaren antolaketan, planifikazioan eta denboraren kudeaketan.
- Mantendu harreman jarraiak ikaslearekin bere bilakaeraren jarraipen pertsonalizatuagoa egin ahal izateko.
- Erraztu harremanak klaseko gainontzeko ikaskideekin, integrazio sozialaren hesi posibleak apurtzeko.

- **Ebaluazio probetan**

- Esan behin eta berriz ikasleei enuntziatuak irakurtzeko eta erantzunak berrikusteko, bereziki, oldarkorrek diren ikasleei.
- Bere arreta deitu, eta gelan distraziorik gabeko leku batean kokatu, posible bada lehenengo ilaretan. Honekin, ikaslea ez distraitzea eta bere arreta fokalizatuta egotea lortuko da, bereziki ikasleak arreta erraz galtzen duen kasuetan.
- Ebaluazio probak egiteko denbora, %25 batean gehitu azpimota guztietan, TDAHko ikasle oldarkorrek, probak lehenago amaitzeko joera izan arren.
- Proba ebaluatu edukia kontuan hartuta, eta ez adierazteko eran.



**Mondragon
Unibertsitatea**

Enpresagintza
Fakultatea
Facultad de
Empresariales

I ERANSKINA

Ikasleak, hezkuntza premia berezien arreta programan sartzeko prozedura

Programan parte hartzen duten pertsona guztiek- ikasleak, Zerbitzu eta Administrazioako pertsonalak, Irakasle-ikertzaileak, koordinazioak eta abarrek era egokian jokatzeko, hurrengo prozedura sortu da.

- Ikasleak bere ezgaitasunaren edo behar bereziaren egoera, Idazkaritza Akademikoan jakinaraziko du edo tutoreari informatuko dio. Jakinarazpen honekin, ikaslearen desgaitasuna edo hezkuntza berezia behar duela egiaztatzen duen ziurtagiri mediku bat edo kontsulta edo zerbitzu espezializatu baten txostena beharko da.
 - Desgaitasun fisikoa baldin bada, Idazkaritza Akademikoak informatu egingo dio ZAPEko taldeari egoera honen gainean, ikasleak bere ikasketak Fakultatean egiteko beharrezko baliabideak izango dituela konprobatzeko.
 - Hezkuntza behar berezia izanez gero, Bai Idazkaritza Akademikoak, bai tutoreak, tituluko Koordinazioari edota kurtsoko coach edo tutoreari informatuko dio, ikasleak daukan behar motaren inguruan.
- Titulazioko koordinatzaileak edo Kurtsoko Coach-tutoreak, dagokien irakasleei, ikaslearen egoerari buruzko informazioa emango die, honen behar fisikoa edo hezkuntza behar mota ezagutarazteko, eta kontuan hartzeko irakaskuntzaren garapenean.
- Irakasleak edota Coachak harremanetan jarriko dira ikaslearekin, baliabide eta neurri egokiak elkarrekin ezartzeko, dagokion materiaren garapen, jarraipen eta ebaluazio egokia egiteko. Horretarako, erreferente bezala, Gida honetako VI puntuan deskribatutakoa hartuko da.